

ABIZENAK

AZPEITIA: Gipuzkoako erri onetatik zabaldu da Bizkaia, Araba ta Logroño'ra: (1348).
Aitzaren beeko aldea edo barrena esan nai dau.

AZPIAZU: Gipuzkoako Azkoitian sortu da eta Euskal-lerri osoan eta emendik kanpora be zabaldu da. (1726)
Argi da "tzu" edo "tsu" zer dan, baiña "Azpia"? Barrena izan leiteke, baita "acerolilo" deritxon landarea be, gurbia.

AZPILIKUETA: Naparroako Baztanetik urten eban. (1567)
"Azpil-" gurbi-antzeko landarea da eta azpil asko dagozan lekua litzake Azpilikueta baserria egiteko lekua. Ortik izena ta abizena.

AZURMENDI: Zegamatik urten eta Bizkaia sartu zan. (1606)
Iñok esan dau azurrak dagozen mendia dala, baiña ori baragarri dala dirudi. Ziurrago esan lei "azar" sasia dagon mendia.

AZURTZA: "Azur" sasi lez artu ezkerro, "-tza" ugartasuna dan ezkerro, sasi asko dagon lekua litzake. Ez iñoz azur asko. (1634)
Gipuzkoa barruan dabil abizen au.

BADIOLA: Azpeitian dagoz iru sendi eta emendi Bizkaia etorri da, batez be Ondarroara. (Azkoitia 1743)
"Badi" irea dala diñoe, jateko bedarra be izan leiteke. "-ola" sarritan agertzen da eta atzizki lez ugartasuna da. Badiola ta Iraola gauza bat litzakez.

BALANZATEGI: Oñaten eta Gipuzkoa osoan. Araba be sartu da: (Oñate 1388).
Arantzategi"tik etorria dala diñoe eta orrelan arantzak dagozen tokia litzake.

BARANDIKA: Mungialdean eta Bizkaia guztian dabil eta kanpora be urten dau. Muxika'n sortua. (1689)
"b-" Proteika edo gero ezarria da. "-Aran-" ibarra dogu. "Di" ugartasuna. "-ka" toki-atzizkia. Au Bizkaian ugari dago baiña ez dakigu zer dan. "Aran asko dagon tokia".

BARANDIARAN: Ataundik urtena. Bizkaian be bada-go. Gipuzkoan zabal. (1691)
"Arandi" k aranak dagozela esan nai dau eta aran orreik ibar baten dagoz. "aran" baten. "Aran-landarak dagozen zelaia edo arana".

BARINAGA: Markiñatik urten eta Bizkaia ta Gipuzkoa osoan zabaldua.
"Gara" irea da "-in-" eta "-aga" toki-atzizkiak.

BAROJA: Araba eta Errioxa inguruetan sortua eta dabillena, baiña sartu da Naparroa ta Gipuzkoara be. (Valladolid 1519).
"Baro-" irea izanik, "-ja" tokia agertzeko atzizkia baiña ez da: "Iralekua".

BARTUREN: Bizkaiko Bakion sortua. Elorriora be zabaldu da. (1748)
"Sasitza" esan gura dau eta "-azur-" da oiñarria. "-en" toki-atzizkia da.

BARRENA: Oñate-inguruan asi eta Gipuzkoan zabaldu da, gero Bizkaian.
Beko aldea edo barrukoa esan gura dau, baiña besterik ezer be ez, eta ori gitxi da. (Villafranca 1399).

BARRENETXEA: Onek "Barrena" utsak baiña zeozer geiago diñosku: Zerbaiten barrenean dagoan etxea.
Eibar-ingurutik Gipuzkoa osora zabaldu da eta Bizkaian be zabal dago. (Ataun 1399)

<*

BARRONDO: Bizkaian dago geien.
"B-" arteko gero ipiña da eta "-arrondo" da jatorria: Izan leiteke arroa edo mendi muñoaren ondoa, arriaren ondoa...

BARRUTIA: Gernika-aldean asi eta Elorriora arte zabaldu da Bizkaian eta Gipuzkoan be ba-dago. (Arrasate 1353)
Inguruan esia dauan lur-arloa da, naiz lur landua naiz landea.

*..

BASABE: Arabako Baldegobian dago izen au dauan erri bat, baiña Bizkaia ta Gipuzkoara be zabaldu da. (Leniz 1429)
Sasiaren barrenean izan leiteke baiña errezago basoaren barrenean dagon lekua.

BASARAZ: Bizkaian dabil (1521).
"-az" tokia. Basoa dan lekua da.